

BESTEAK BESTE, IRUÑEKO MUSIKA KAPERA, EUSKADIKO ORKESTRA ETA OSTOTS TALDEA

Musikasteren 25. urtemugan artista handiak ariko dira

Euskal musikan izen handia duten artistek hainbat obra estreinatuko dituzte Erreterian maiatzaren 18tik 24ra arte. Musikastek 25 urte egin ditu euskal musika bultzatzen, eta zilarrezko ezteiak ospatzeko egitarau aberatsa antolatu dute Andra Mari Koralak eta Eresbil artxiboak.

Joxi Ubeda / Erreterian

MUSIKASTE 1973an sortu zenean, «geure musikaren historia ikertzeko kezka bultzatu, sortze nahi handiagoak eragin, gure interpretatzaileak lagundu, jarrera erosoetan lokartutako kontzientziak esnatu eta ahalegin pribatuak koordinatzea» zen Andra Mari Koralaren helburua. Erreterian Musika Asteak bide horri eutsi dio 25 urteotan, eta Euskal musika bultzatu du bere ibilbidean zehar.

192 euskal obra estreinatu dira • Musikasten orain arteko ibilbidean 1.173 obra interpretatu dira, hainbat garaitako 249 euskal konpositorek sortuak. 192 obra estreinatu dira iragan 24 ekitaldietan, guztira 92 abesbatza aritu dira, 57 abots bakar-lari, 34 talde instrumental eta 7 orkestra sinfoniko. Datu horiek guztiak eta aurten izango direnak bilduko dira Musikastek urte amaierarako argitaratuko duen liburuan.

Andra Mari Koralak Eresbil Euskal Musikarien Artxiboa sortu, eta Eresbilen 1974ko uztailean biltzen hasi ziren lehenengo partiturak. Egun 1.200 euskal konpositoren obrak gordetzen ditu, eta euskal musikarekin loturarik izan duten beste 200 konpositorenenak. Musikaste hazi egin da urtez urte, eta, horrela, iaz Eresbil Patronatua sortu zuten Andra Mari Koralak, Erreterian-



Miguel Buen, Jose Maria Lete, Amaia Rodriguez, Jose Luis Ansorena eta Jon Bagues mintzatu ziren atzo Erreterian 25. Musikasteren inguruan.

ANDER GILLENEA

ko Kaputxinoek, Udalak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak.

Jose Maria Lete Lete lehendakariak eta Musikasteko gainerrako arduradunek, Miguel Buen Erreterian alkateak eta Amaia Rodriguez Eusko Jaurlaritzako Kultura Sortu eta Zabaltzeko zuzendariak aurkeztu zuten atzo, Eresbil artxiboan bertan, Musikasteren 25. ekitaldia. Igandean, 9 kontzertu izango dira aldi berean Erreterian auzoetan, Pa-

blo Sorozabalen antzerki lirikoko piezak entzungo dira, eta arratsaldean Sorozabalen beraren eta Bruno Imazen jai giroko musika interpretatuko dute herriko hainbat taldek eta kantarik. Arratsaldean Musikasteren sortzaileetako bat omenduko dute: Antontxu Sainz.

Jaialdian Pablo Sorozabal konpositorea eta Donostiako Orfeoia ere omenduko dituzte, eta hilaren 19tik 24ra arte talde eta interpretatzaile handien eskutik

izango dira kontzertuak. Besteak beste, hauek ariko dira: Erdi Aroan sortutako Iruñeko Katedraleko Musika Kapera, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Ostots taldea, Alzugaray ganbara hirukote sortu berria, Grupo Vocal Presence abesbatza, Samaniego abesbatza, Bilboko Abesbatza Elkarte, San Fermin abesbatza, Araba abesbatza, Erreterian Andra Mari Korala, Itziar Martinez sopranoa eta Maite Arruabarrena mezzosopranoa.

Zilarrezko estreinaldiak

Erreterian Musika Astearen barruan aurten hainbat obra estreinatuko dira Kaputxinoen elizan, eta Musikastek berreskuratutako beste hainbat obra ezezagun ere entzun ahal izango dira. «Musika garaikidean sarritan gertatzen da obrak estreinatzen direla, baina bigarren emanaldia oso zaila izan ohi dela», Jon Bagues talde antolatzaileko teknikariak azaldu duenez.

✱ **Abangoardiako lau obra.** Maiatzaren 22an «abangoardiako» euskal musika izango da ardatza. Ramon Lazkanok gidaturiko Ostots taldeak eta Maria Mendizabal sopranoak Lazkanok berak sortutako *Sorginkeriak* obra interpretatzeaz gain, lau konpositore gazteren obra bana estreinatuko dute: Sofia Martinez gasteiztarraren *I had a dream- En memoria de Luther King*, Joseba Torre bilbotarraren *Fragmentation*, Martin Zalba iruindarrak Antonio Machado idazlearen testuekin osaturiko *3 Proverbios* eta Patxi Larrañaga erreteriarren *5 Bagatelas (sobre un tema de Prokofiev)*. Obra osatu berriak dira.

✱ **Pablo Sorozabalen 'Nahi zuya yin'.** Musikastek Pablo Sorozabal konpositore donostiarraren (1897-1988) *Nahi zuya yin* obra berreskuratu eta maiatzaren 23an, Abesbatzen Egunean, aurkez-

tuko du. «Bi abesbatzentzat osatutako obra da», dio Jon Baguesek. «Pablo Sorozabalek musika konposatuta utzi zuen baina testua ipini gabe». Abesbatza musikari eskainitako egunean bertan Aizarnan jaiotako Eustaquio Gurrutxaga konpositorearen (1897-1988) *Amatxo maitia* ere estreinatuko da. «Beste hainbat obraren emanaldiak ere estreinalditzat har litezke. Pablo Sorozabalen beste bi *lieder*, euskaraz idatzitakoak. Obra horien berri ez genuen. Haren etxean aurkitu ditugu». Hilaren 20an entzun ahal izango dira azken obra horiek ahotsezko musikaren egunean.

✱ **Jesus Guridiren hiru pieza.** Jesus Guridi (1886-1961) gasteiztarraren musikak emango dio hasiera astearteko kontzertuari. «Duela urte asko hil zen Jesus Guridi, eta haren hainbat obra oraindik ezezagunak dira. Estreinatu

gabeak ez badira ere erabat ezezagunak dira».

✱ **Felix Ibarrondoren 'Nerezko-Aiak'.** Maiatzaren 24an antolatutako amaierako kontzertuan, besteak beste, Felix Ibarrondo oñatiarrak biolontxelo eta orkestrarako sortutako *Nerezko-Aiak* entzun ahal izango da. «Euskal Herrian lehenengo aldiz entzun ahal izango da ziur aski». Amaierako kontzertua zabalduko duen obrarekin «gauza bera gertatzen da». Tomas Mugika (1883-1963) tolosarrak konposaturiko *El resurgir de un pueblo* poema sinfonikoa da aipaturiko azken obra hori. «Tomas Mugika Hego Amerikara joan zen 20ko hamarkadan, Montevideoa, eta han landu zuen musika. Jaioterriaren omenez sortu zuen *El resurgir de un pueblo* 1939an, Espainiako Gerra Zibilean. Obra hori erabat ezezaguna da gure artean». ✱

Ziortzako Kolegiatako antzinako musikako sei emanaldi aterbetuko ditu

■ *Bachen 'Nekaldia San Mateoren arabera'* zuzenduko du Juan Jose Menak

Montse Arregi / Bilbo

HURRENGO astean hasiko da Ziortzako Kolegiatan antzinako musika kontzertuen zikloa. Hilaren 24tik ekainaren 8ra bitartean sei emanaldi egingo dira, lehen mailako musikari eskainiak. Aurtengoa bederatzigarren musikaldia izango da. Musika gregorianoarekin hasi eta *Bachen Nekaldia San Mateoren arabera* eszenaratu amaituko da. Emanaldiak arratsaldeko 18:00etan hasiko dira.

Hilaren 24an musika gregoriano kontzertuak emango dio hasiera zikloari. Aita Xabier Irastorzak zuzentzen duen Easo Abesbatzako talde gregorianoak eskainiko du emanaldia. Hilaren 25ean, berriz, Eduardo Paniagua zuzendari duen Grupo de Musica Antigua-k Alfonso X.aren *Santa Mariari eginiko kantigak - eskainiko ditu. XIII. mendeko kantak dir kantigak, eta Ziortzako kontzerturako sendabideez mintzo direnak aukeratu dira.*

*Kolegiatako organo berriztatua entzuteko parada izango da hilaren 31n eta ekainaren 1ean Rudolf Mayer maisuaren eskutik. Lehen kontzertuan XVI. mendetik XIX.era bitarteko erreperitorioa eskainiko du. Bigarren egunean, berriz, Mayer maisuak Azkuek jasotako euskal legenda baten gainean inprobisatuko du. Musika ziklo honetako bitxikeria Tolosako (Okzitania) *Les Sacqueboutiers taldea izango da, musika barrokoa garai hartako musika tresnekin interpretatuko baitute ekainaren 7an.**

Bachen maisulana maisuen eskutik

• Ezohiko kontzertuak emango dio amaiera aurtengo zikloari. Juan Jose Mena zuzendariaren batuta-pean, Johann Sebastian Bach-en *Nekaldia San Mateoren arabera* interpretatuko dute Aita Donostia Ganbara Orkestrak, Erreterian Andra Mari Abesbatzak eta herri bereko umeen Orereta Abesbatzak. Bakarleri lanetan abeslari profesionalak ariko dira, besteak beste, Isabel Alvarez, Joseba Carril, Carlos Mena eta Luis Villamajo.

Juan Jose Mena zuzendariak Ziortzako zikloaren aurkezpenean adierazi zuenez, Bach-en partitura «literatura musikaren oinarriko lane-tako bat da».

Peli Egaña Easo Abesbatzako lehendakariak talde gregorianoaren kalitatea azpimarratu zuen atzoko aurkezpenean. Easo Abesbatzak 57 urte bete dituela ekarri zuen gogora. ✱